

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Lufthansak Iruña sartu du munduko ibilbideen sarean

Alemaniako airelineak hegaldi zuzen berriak eskainiko ditu Frankfurtera, Nafarroako hiriburua Alemaniako, Europako eta kontinente arteko hainbat tokirekin lotuz

Asteazkena, 2017.eko uztailak 19

[Lufthansak](#) eta [Nafarroako Gobernuak](#), [Sodena](#) enpresa publikoaren bidez, Iruña eta Frankfurt (Alemania) lotuko dituen airetiko ibilbide berria aterako dutela jakinarazi dute. Horrela, Alemaniako airelineak Nafarroarekin eta mugako eskualdeekin eta Iruñeko aireportua garatzearekin duen konpromisoa agertu du.



Lufthansak Iruña sartu du bere munduko ibilbide-sarean.

2017ko azaroaren 6tik aurrera, 2017/2018 neguko ordutegia dela eta, Lufthansak astero zortzi alditan lotuko ditu Iruña eta Frankfurteko nazioarteko hub-a. Horrela, sarrerako eta irteerako bidaiarien trafikoa sustatuko du, eta Nafarroaren eta mundu osoko tokien arteko loturak hobetuko ditu.

LH1118 hegaldia astelehen, asteazken, ostiral eta igandeetan aineratuko da Frankfurtekin, 09:30ean, eta Iruñera 11:30ean helduko da. Itzulerako hegaldia, LH1119 kodea duena, asteke egun beretan abiatuko da, 12:20an Nafarroako hiriburutik, eta Alemaniako hirian 14:30ean lehorreratuko da. Horrenbestez, lotura bikainak emango ditu airelineak Iruñetik kontinente arteko beste leku batzuetara, hala nola Tokiora, New Yorkera, Bangkokera, Hong Kongera edo Johannesburgora; baita Alemaniako eta Europako beste leku batzuetara ere: Hanburgo, Budapest, Viena, Varsovia edo Mosku.

Konpainiak Airbus A319 hegazkin modernoak erabiliko ditu ibilbide berrian, 138 bidaiarientzako lekuekin, bi motatako zerbitzutan banatuta: Business eta Economy Class. Beti bezala doako cateringa eskainiko die bidaiari guztiei eta hegaldi guztietan, baita Internet ere, pixkanaka Europako hegazkinen A320 familiako modeloetan instalatzen ari dena. Maiztasun berrietarako txartelak uztailaren 19tik aurrera egongo dira salgai bidaia-agentzietan eta LH.com web-orrian.

Espainiako eta Portugalerako Lufthansa Taldearen zuzendari nagusia den Carsten Hoffmannek hauxe adierazi du: "Lehendabizi

eskerrak eman nahi dizkiot Sodenaren lanari, funtsezkoa izan delako ibilbide berri hau ezartzeko. Ohorea da guretzat Nafarroan lehen aldiz jardutea eta bere herritarrek eta eskualde garrantzitsu hau gainerako munduarekin lotzea gure aireportuaren bidez, beti kalitate handieneko produktu eta zerbitzuekin".

Bestalde, Manu Ayerdik, Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak, hauxe esan du: "Nafarroako Gobernu oso pozik dago Lufthansaren erabakiarekin eta eskerrak ematen dizkio konpainiari Nafarroako merkaturan egindako apustuarengatik. Nazioarteko lotura horrek garrantzi estrategiko handia izango du eskualderako. Bertako enpresen lehiakortasuna hobetuko du eta Nafarroako turismo-sektorearen garapenean lagunduko du, Europako turismoaren irisgarritasuna erraztuz. Gure eskualdearen espezializazio adimentsuko Estrategian aurkitutako eskaera bat da, nazioarteko konektibitatea, eta abian jarriko da".

Lufthansaren hub-a Frankfurt

Alemaniko aireportu zibilik handiena da, eta baita munduko airezko jarduera zentro garrantzitsuenetako bat ere. Horrez gain, Lufthansako bost aireportu zentralik handiena da, eta bisitarien mota guztietako zerbitzuak, instalazioak eta ekitaldiak eskaintzen dizkie. Informazio gehiagorako: <http://www.lufthansa.com/es/es/Lufthansa-en-el-aeropuerto-de-Frankfurt>

Lufthansa, Europako airelinearik onena Skytraxen arabera

Lufthansa duela gutxi "Europako Airelinearik Onena" izendatu du Skytrax hegazkintzaren merkaturako ikerketa erakundeak. Horrez gain, "Europa Mendebaldeko Airelineari Onena" aukeratu dute, eta "Catering onenaren" saria ere jaso du First Classen Loungen. Informazio gehiagorako: http://www.worldairlineawards.com/Awards/best_airlines_by_world_region.html

Lufthansa taldea Espainian

Espainiako merkaturako oso garrantzitsua da Lufthansa Taldearentzat Europan, % 10eko merkatu kuotarekin herrialdean. Taldea osatzen duten airelineek (Lufthansa, SWISS, Austrian Airlines, Brussels Airlines eta Eurowings) 9 milioi bidaiari baino gehiago garraiatu zituzten 2016an, 2015ean baino % 8 gehiago, Espainia abiapuntua eta jatorria izanda.

Taldeko airelineek 1.728 hegaldi eskaintzen dituzte astero 2017ko udaldian, Espainiako aireportu batetik abiatuz edo helmuza izanda, beraz, % 12,3 handitu da 2016an eskaintako maiztasunekiko.